

Alba Garmendia Castaños

Azurmendik kuirrentzat idazten zuen (barka intrusismoa)

Uztailak 7, astelehena, 14:33. Irudi bat bidali dit Haritzek Whatsappe-tik, eta esteka bat segidan. Irakurri dut irudian agertzen den testua, eta erantzun diot: «Egitan hoi esanda zeukela?!».

Joxeri egin zioten elkarrizketa zati bat zen irudikoa, neronek urtea bete berri nuela argitaratu zena *Larrun* aldizkarian –1993an, alegia–, eta, besteak beste, hau esaten zuena: «Hori da ezkerrari gehiegitan gertatu zaiona: utopia eta utopiaren eginkizuna programan sartu. Hori da egin behar ez dena: utopiak inspiratu egin behar du, baina ez programaren kapitulu bat bihurtu. Bestela absolutismoa eta tirania sortzen du». Bada, tira, hori da ere udazken honetan aterako den *Iparrorratza* bildumako liburuxkan esan dudana. 1993ko testuingurutik ez, 2025eko honetatik egindakoa da *Iparrorratza*-koa, baina ideia bera da, funtsean.

Egina dago spoilerra, Azurmendik duela 32 urte botatako esaldi pare batean, beste gai bati buruz ari zela, asko pentsatu gabe bezala. Koope-
ratibismoaz ari zen orduan, izan ditzakeen potentziaz eta arriskuez, zehazki. Eta orduan esan zuen esaldi eder hau: «Alderdi negatiboek ikaratzen duten borrokalari sozialak egin behar duena da lehen bait lehen jubilatatu», eta segida-segidan utopiari buruzko aiputxo.

Ez naiz ni aditu azurmenditarra, noski. Idatzi duen guztirako, gutxi irakurri dut. Baina utopiari buruz esaten zuena alde edo moldez eza-
gutzen nuelakoan nengoen, eta, hara non, berriz sartu ziria. Argi sa-
mar idatzi nahian hilabeteak eman ditudan testua elkarrizketa batean
simple asko eta maisuki ebatzi zuen.

Maisu handiekin gertatzen zaizkigu halakoak: esan beharreko guztiak
Azurmendik momenturen batean esan dituela ematen du. Horregatik
bidali izan dizkiogu elkarri Azurmendiri irakurritako testu zatiak. Giza-
bereaz hau esaten duela, beste hura utopiaz, nazioaren gogoeta honek

beste hura gogorarazten duela... Horrela ere irakurri dugu Azurmendi, lagunarte txiki batean partekatu ditugun pasarteen eta gogoeten bidez. Zortea izan dut horren parte izatea tokatu zaidalako; ederra da.

Baina ez luke behar ausazko. *Iparrorratza*-ko liburuxkan esan nahi izan dudana beste gauza bat da hori. Azurmendiren itzalean bagabiltza batzuk zerbaitetan, Azurmendiren eskola deitzen ez diogun baina dei geniezaiokeen taldetxo bat-edo. Ez du talde izaerarik, baina Azurmendiren irakurketa kritikoak eta gaurkotuak egiteko lan bokazionala egiten duen ez-hain-gazte asko ari da kontuan hartzeko moduko ekarpenak egiten. Belaunaldi berri azurmenditar horrek kide berriak behar ditu, taldetasun izaera bat, legitimitate sendoa ezker zabalean, elkarrizketa publikoa, aliatuen mesfidantza gutxiago. Ukabila eta pizkundea, gaur.

Ez dira nostalgia kantuak.

Azurmendik elkarrizketa berberean esan zuen «bere buruarekin identifikatzeko problema batzuk dauzkanarentzat» idazten zuela, «bai euskaldun bezala eta bai pertsona bezala» arazoak zituen horrentzat. Bizi duen Euskal Herria problemarik gabe maite duenarentzat, ez. «Nik holako pertsona bati afari on bat jarriko nioke eta izan dadila zoriontsu». Bada, tira, hori. Eta gehiago (gogoratu, 1993an): «Iruñean protestantea izateak edo Donostian lesbiana izateak edo Bilbon homosexuala izateak, pena asko dakar, baino intelektualki posibilitate asko irekitzen du, [...] hauxe naiz eta naizen hontatik ikusi eta juzgatu nahi dut mundua». Leku hori, Azurmendik dioenez, protestante, lesbiana edo homosexual izateak bezainbeste ematen du euskaldun izateak. Alegia, Azurmendiren eskola ez dela gizon abertzale nostalgikoen klan bat. Babes- eta borroka-gune bat da Euskal Herria arazotik bizi duten horientzat. Euskal Herria, edo euskara, edo kultura, edo nazioa, edo identitatea... Azken batean, Azurmendik kuirrentzat idazten zuen, pertsona (indibiduo) bezala ez ezik, euskaldun (gizarte) bezala ere kuir garen horientzat. Kide berriak behar ditu Azurmendiren eskolak, eta kuir berriak ere bai.